

BANKU-JARDUERA ARDURATSUAREN PRINTZIOIOAK

LABORAL Kutxaren 2022ko Garapen Txostena | 1 / 10



TXOSTENAK ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK	BANKUAREN ERANTZUNAREN GOI-MAILAKO LABURPENA	BANKUAREN ERANTZUN OSOAREKIKO/INFORMAZIO NABARMENAREKIKO ERREFERENTZIAK/ESTEKAK
1. PRINTZIOIOA. Lerrokatzea. Estrategia komertziala lerrokatzea, koherentea izan dadin eta pertsonen premiak asetzen eta gizartearen helburuak lortzen lagundu dezan, Garapen Jasangarrirako Helburuek, Klimari buruzko Parisko Akordioak eta nazio- zein eskualde-mailako esparru garrantzitsuek agintzen dutenari jarraikiz.		
<p>1.1. Deskribatu (goi-maila) bankuaren negozio-eredua, eta artatzen diren bezero-segmentu nagusiak, eskaintzen diren produktu- eta zerbitzu-motak, jarduera-sektore eta -mota nagusiak eta, garrantzitsua denean, zure bankuak lan egiten duen edo produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituen eremu geografiko nagusietan finantzatzen diren teknologiak.</p>	<p>LABORAL Kutxak banku-zerbitzu komertzialak eta enpresei bideratutakoak eskaintzen ditu, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan. Partikularrak, autonomoak, negozioak, enpresa txiki eta ertainak, eta enpresa handiak dira segmentu nagusiak, eta horien artean daude kooperatibak, Mondragonekoak ere bai (Entitatea sortu zutenak).</p> <p>Galdera horiei erantzuteko, 2021eko Jasangarritasun Txostena eta Informazio ez-finantzarioaren egoera- orria erabili ditugu, biak ere GRI estandarren araberrakoak eta AENOREk ikuskatuak.</p>	<p>1.1. Taldearen aurkezpena (8. G.) 1.3. Kooperatibismoa (10. G.) 1.5. Bulegoen banaketa geografikoa (12. G.) 1.6. Taldearen magnitude nagusiak (13. G.) 3.1.2. Bezeroen magnitude nagusiak (37. G.) 3.1.6. Produktu eta zerbitzu arduratsuak (45-51 G.) 4.1. Bezeroak (83. G.) Produktu eta zerbitzu arduratsuen magnitude nagusiak (85. G.)</p>
<p>1.2. Deskribatu bankua nola lerrokatu den, edo bere estrategia nola lerrokatu nahi duen, koherentea izan dadin eta gizartearen helburuak lortzen lagundu dezan, Garapen Jasangarrirako Helburuek (GJHek), Klimari buruzko Parisko Akordioak eta nazio- zein eskualde-mailako esparru nabarmenek agintzen dutenari jarraikiz.</p>	<p>LABORAL Kutxa kreditu-kooperatiba bat da. Beraz, gizarte-ekonomiakoa da, eta lan egiten duen eremuko aurrerapen ekonomikoa eta soziala sustatzeko sortu zen. Ildo horretan, jasangarritasuna gure strategiaren osagaietako bat izan da betidanik. Horren erakusgarri nagusia da urteko mozkinen % 25 gizarteari itzultzen zaiola.</p> <p>LABORAL Kutxak, bere jatorria, jarduera eta ibilbidea kontuan hartuta, 5., 8., 9., 10. eta 17. GJHak lehenesten ditu. 2022an, Kontseilu Errektoreak hausnarketa egingo du, lehenetasun horiek eguneratzeko.</p> <p>LABORAL Kutxaren 2020-2022rako gogoeta estrategiko orokorrean Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak txertatu genituen, jarduera eredu jasangarriago baterantz bideratzeko gida izan daitezen.</p> <p>2020aren amaieran gogoeta bati ekin genion, finantza jasangarrien estrategia bat proposatzeko. Helburua gure hasierako egoera ezagutzea zen, hortik abiatuz hobekuntza-arloak antzemateko eta estrategia global bat finkatzeko. 2021aren hasieran osatu genuen estrategia hori. Hausnarketaren ondorioz, jasangarritasun-estrategia ezartzeko ibilbide-orria prestatu genuen, eta urtearen bigarren erdian jarri zen martxan. Orrian jasota dauden 11 puntuetatik 2 strategiari buruzkoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Jasangarritasunaren arloan LABORAL Kutxa Taldeak duen asmoa islatzea eta dagoeneko hartuta dauden konpromisoen xehetasunak areagotzea, jasangarritasun-estrategia garatuz.• LABORAL Kutxa Taldearen jasangarritasun-estrategia nazioarteko itun nagusiekin lerrokatzea eta ekintza nabarmentzea.	<p>0. Gutuna (5-6 G.) 1.7. Estrategia eta arriskuaren gestioa (15-17 G.) 2.6. Nazio Batuen Mundu Ituna eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (34-35 G.) TCFD. 2020ko Jasangarritasun Txostenaren eranskina.</p>

BANKU-JARDUERA ARDURATSUAREN PRINTZIOIOAK

LABORAL Kutxaren 2022ko Garapen Txostena | 2 / 10

TXOSTENAK ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK	BANKUAREN ERANTZUNAREN GOI-MAILAKO LABURPENA	BANKUAREN ERANTZUN OSOAREKIKO/INFORMAZIO NABARMENAREKIKO ERREFERENTZIAK/ESTEKAK
	<p>2021ean egin zen lehen txostena, TCFD (Task Force On Climate-related Financial Disclosures) lantaldearen gomendioei jarraituz. Txosten hori jasagarritasunaren eta klima-aldaketaren arriskuak kontuan hartzeko lehen hurbilketa izan da. 2022an beste txosten bat egingo dugu, sakonagoa, planteatutako helburuak eta emandako aurrerapausoak azaltzeko.</p> <p>2022rako Jasagarritasunaren Gestio Planean zehaztuta dagoenez, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak ezartzen jarraituko dugu, eta aztertuko dugu ea bat egingo dugun Net Zero konpromisoarekin eta zorroa deskarbonizatzeko helburuekin.</p> <p>2022an —egungo aldi estrategikoa amaitzean— abian jarritako birbideratze estrategikorako prozesuaren barruan, jasagarritasuna da ardatz nagusietako bat. Hasieran, hiru ekimen planteatu ditugu ildo horretan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Jasagarritasuna xedearen ezinbesteko osagai izan dadila.• Birbideratzearen ondorioz, jasagarritasuneko epe ertaineko plan zuzentzailea diseinatzea.• Kontseilu Errektoreak berriro zehaztea lehenetsitako GJHak.	
2. PRINTZIOIOA. Eragina eta helburuak ezartzea. Inpaktu positiboak etengabe areagotzea, jardueren, produktuen eta zerbitzuen inpaktu negatiboak murrizten eta jendearentzako zein ingurumenerako arriskuak kudeatzen diren bitartean. Horretarako, helburuak ezarri eta argitaratzea, inpakturik garrantzitsuenak izan daitezkeen eremuetarako.		
<p>2.1 Inpaktu-azterketa:</p> <p>Erakutsi bankuak identifikatu dituela bere inpaktu positibo eta negatiborik nabarmenena (potentziala) jasotzen duten eremuak, elementu hauek aintzat hartzen dituen inpaktu-azterketa baten bidez:</p> <p>a) Irismena. 1.1. puntuan deskribatzen denez, bankuaren negozio-eremu nagusiak, bankuak lan egiten duen eremu geografiko nagusietako produktu nahiz zerbitzuak, hartu dira aintzat azterketaren irismenean.</p>	<p>Jasagarritasun Txostena egiteko, inpaktuak, arriskuak eta aukerak aztertzen ditugu urtero, eta materialtasun-analisi bat ere egiten dugu.</p> <p>2022an egin dugu lehen azterketa, NBIP FEk plazaratutako tresna erabilia. Bankuetako zorroen inpaktua aztertzeko dago diseinatuta tresna hori, eta txikizkako eta handizkako zorroen inpaktuak aztertzeko balio du.</p> <p>Egindako inpaktu-azterketak baldintza hauek betetzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none">• Bankuaren negozio-eremu nagusiak hartu ditu kontuan, aseguruaren negozioa eta aktiboaren gestioa izan ezik, eta jarduera-eremu geografiko osoari erreparatu dio.• LABORAL Kutxaren negozioaren barruan, hipoteka-negozioarekiko esposizioa nabarmentzen da batez ere. <p>LABORAL Kutxaren negozio-ildo horiek ebaluatu ondoren, eta Espainiako estatuko behar espezifikoaren arabera, LABORAL Kutxak eragin nabarmena izan dezakeen eremu batzuk zehaztu ditu tresnak. Eremu horietatik hiru garrantzitsuenak aukeratu dira, eta inpakturik handiena lortzeko aukera ematen duten horietan jarri da arreta.</p>	<p>1.7. Estrategia eta arriskuaren gestioa (15-17 G.)</p> <p>1.8. Printzipioak eta gobernuak (17-22 G.)</p> <p>2.5. Materialtasun-analisia (32-34 G.)</p> <p>3.16. Produktu eta zerbitzu arduratsuak (45-51 G.)</p> <p>3.4. Ingurumenarekiko harremanak (71-78 G.)</p> <p>2.2. Konpromisoak eta lorpenak (26-27 G.)</p> <p>2.4. EGeko aginte-taula (31-32 G.)</p>

BANKU-JARDUERA ARDURATSUAREN PRINTZIOAK

LABORAL Kutxaren 2022ko Garapen Txostena | 3 / 10

TXOSTENAK ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK	BANKUAREN ERANTZUNAREN GOI-MAILAKO LABURPENA	BANKUAREN ERANTZUN OSOAREKIKO/INFORMAZIO NABARMENAREKIKO ERREFERENTZIAK/ESTEKAK
<p>b) Esposizio-eskala. Negozio nagusia edo jarduera nagusiak non dauden, industriei, teknologiei eta eremu geografikoei dagokienez.</p> <p>c) Testuingurua eta garrantzia. Garapen jasangarriaren alorreko desafio eta lehentasunik garrantzitsuenak.</p> <p>d) Inpaktuaren eskala eta intentsitatea edo garrantzia. Bankuaren jarduerak eta produktu- eta zerbitzu-hornidurak eragiten dituen inpaktu sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak.</p> <p>Erakutsi bankuak, azterketa horretaz baliatuta, hauek egin zituela:</p> <ul style="list-style-type: none">• Bere inpaktu (potentzial) positibo eta negatiboko eremu nagusiak identifikatu eta argitaratu.• Aukera komertzial estrategikoak identifikatu, inpaktu positiboaren areagotzean eta inpaktu negatiboaren murrizketan.	<p>LABORAL Kutxaren kasuan, ondorio hauek atera dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Entitateak eragin positiboa du bai enpleguaren eremuan eta bai ekonomia inklusibo eta osasungarrienean.• Eragin negatiboa du klimari dagokionez. <p>Analisia egin ondoren, aztertu dugu ea LABORAL Kutxak nola lagun dezakeen eragin positiboko eremuak sustatzen eta, aldi berean, eragin negatiboak murrizten. Horretarako, tresnak berak proposatutako adierazleak aukeratu ditugu. Gainera, beste adierazle batzuk ere hartu ditugu, tresnak berak emandakoak izan ez arren, LABORAL Kutxarentzat oso interesgarriak direlakoan.</p> <p>Azkenik, 2022an materialtasun bikoitzeko azterketari ekin diogu. LABORAL Kutxaren jarduerak gizartearen, ingurumenaren eta gobernu korporatiboaren alorretan duen eraginari buruzko iritzia galdetuko diegu interes-taldeei. Materialtasun bikoitzeko azterketa hori 2022ko Jasangarritasun Txostenari erantsiko zaio.</p>	
<p>Ondorioztatu/adierazi ea bankuak inpaktu-azterketaren baldintzak bete dituen.</p>		
<p>2022an inpaktuen lehenengo azterketa egin dugu NBIP FEk proposatutako tresna baliatuta. Lehenengo analisi hori urtez urte hobetzen joango da, tresna are gehiago ezagutzen dugun heinean eta eskuragarri dauden gure zorroko datuen kalitatea eta sakontasuna hobetu ahala.</p>		

TXOSTENAK ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK

2.2 Helburuak prestatzea

Erakutsi bankuak gutxienez bi helburu espezifiko neurgarri (kualitatiboak edo kuantitatiboak) ezarri eta argitaratu dituela. Lorgarriak, nabarmenak eta epe jakin batean iristekoak izan behar dute helburuek, eta identifikatutako «inpaktu-eremu garrantzitsuenetatik» 2 behintzat hartu behar ditu aintzat.

Erakutsi helburuek lotura dutela elkarrekin eta GJHekiko, Parisko Akordioarekiko eta nazioarte-, nazio- edo eskualde-mailako beste esparru garrantzitsu batzuekiko lerroak bultzatzen dutela, bai eta haietarako ekarpen handiagoak ere. Oinarritzko lerro baten arabera identifikatu eta ezarri helburuak. Urte jakin batekoa izan behar du lerro horrek.

Erakutsi bankuak aztertu eta ezagutu dituela helburuen inpaktu negatibo garrantzitsuak (potentzialak) eta ekintza nabarmenak ezarri dituela haiek leuntzeko eta ahal den neurrian inpaktu positibo garbia areagotzeko.

BANKUAREN ERANTZUNAREN GOI-MAILAKO LABURPENA

2019an gogoeta estrategikoa egin ostean, sozietatearen helburuak lortzen laguntzen duten 10 helburu neurgarri ezarri genituen. Helburu horiek ezartzeko, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak hartu genituen aintzat, eta erakundearen xedeekin lerrotatu.

Helburu horiek bankuaren eraginpean dauden jasangarritasun-eremu nagusietan dute eragina.

Batetik, inpaktu-azterketari esker, helburu hauek zehaztu dira:

EREMUA	ADIERAZLEA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	EPEA	ARDURADUNA	GJHak
Enplegua	Ingurumen- eta gizarte-errendimendurako pizgarriak	Zuzendaritza Kontseiluko kideentzako gizarte- eta ingurumen-helburuak daude	Departamentu-zuzendaritzetara zabaltzea	1 urte	Pertsonak	8, 13
	Lan-legeria urratzearekin eta laneko diskriminazioarekin lotutako legezko prozeduren ondoriozko diru-galeren zenbateko osoa	0	0	1 urte	Araudia Betearaztea	3, 8, 16
	Generoaren araberako ordezkaritza-ehunekoa, zuzendaritzarako, langile teknikoaren talderako eta gainerako langileen talderako	Zuzendaritza: % 37	% 40	3 urte	Pertsonak	5
	Intzidente erregistragarrien guztizko tasa eta zuzeneko langileentzako eta kontratatutako langileentzako heriotza-tasa	28	20	1 urte	Segurtasun eta Osasun Batzordea	3, 8

BANKUAREN ERANTZUN OSOAREKIKO/INFORMAZIO NABARMENAREKIKO ERREFERENTZIAK/ESTEKAK

1.7. Estrategia eta arriskuaren gestioa (15. G)

2.6. Nazio Batuen Mundu Ituna eta Garapen Jasangarriko Helburuak (34-35 G)

2.2. Konpromisoak eta lorpenak (29-30 G.)

BANKU-JARDUERA ARDURATSUAREN PRINTZIOAK

LABORAL Kutxaren 2022ko Garapen Txostena | 5 / 10

TXOSTENAK ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK	BANKUAREN ERANTZUNAREN GOI-MAILAKO LABURPENA							BANKUAREN ERANTZUN OSOAREKIKO/INFORMAZIO NABARMENAREKIKO ERREFERENTZIAK/ESTEKAK
	EREMUA	ADIERAZLEA	EGUNGO EGOERA	HELBURUA	EPEA	ARDURADUNA	GJHak	
	Klima	1 irismeneko isurtze garbiak	213 tona	200 tona	1 urte	Ingurumen Batzordea	11, 13	
		Kontsumitzen den energia elektriko guztia iturri berriztagarrien bidez ekoiztea	% 13	% 100	3 urte	Ingurumen Batzordea	7, 11, 13	
		Paperaren kontsumoa	367.381 kg	183.690 kg (% 50)	3 urte	Jasangarritasun Bulegoa	11, 12, 15	
		Klima-aldaketaren arriskuarekiko esposizioaren azterketa, zorroaren esposizio sistematikoaren maila eta arriskuak arintzeko estrategiak deskribatzea (F edo G energia-kalifikazioa duten hipotekatutako etxebizitzaren ehunekoari buruz ari gara)	% 28,30	% 25	5 urte	Jasangarritasun Bulegoa	7, 11, 13	
	Ekonomia inklusibo eta osasungarriak	Tokiko erosketak	% 94,20	% 95	1 urte	Jasangarritasun Bulegoa	12, 13	
		Mozkinak gizartean banatzea	18.370.000 €	20.261.029 €	1 urte	Zuzendaritza	4, 8, 10	
Ondorioztatu/adierazi ea helburu-eraketaren baldintzak bete dituen.								
Inpaktu-azterketaren ondorioz helburu batzuk zehaztu ditugu, eta Jasangarritasuneko Plan Zuzentzailean sartuko dira.								
<p>2.3. Helburuak ezartzeko eta monitorizatzeko planak</p> <p>Erakutsi bankuak ekintzak eta xedeak zehaztu dituela ezarritako helburuak betetzeko.</p>	<p>Plan Estrategikoan finkatutako helburuei dagokienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Helburuen jarraipena 2022ko Gestio Planean jaso dugu, eta horretarako arduradunak zehaztu ditugu. • Helburuen bilakaera 3 hilean behin monitorizatzen du horretaz arduratzen den Plangintzako departamentuak. 							<p>2.6. Nazio Batuen Mundu Ituna eta Garapen Jasangarriko Helburuak (34-35 G)</p> <p>3.2.5. Aniztasuna eta aukeraberdintasuna (57-59 G.)</p>

BANKU-JARDUERA ARDURATSUAREN PRINTZIOIOAK

LABORAL Kutxaren 2022ko Garapen Txostena | 6 / 10

TXOSTENAK ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK	BANKUAREN ERANTZUNAREN GOI-MAILAKO LABURPENA	BANKUAREN ERANTZUN OSOAREKIKO/INFORMAZIO NABARMENAREKIKO ERREFERENTZIAK/ESTEKAK
<p>Erakutsi bankuak baliabideak jarri dituela ezarritako helburuak lortzeko egindako aurrerapena neurtu eta monitorizatzeko. Gardenak izan behar dute errendimendu-adierazle nagusien definizioek, haien aldaketek eta oinarritzko lerroen gainditzeak.</p>	<ul style="list-style-type: none">Jasangarritasun Batzordeak —Zuzendaritza Kontseilu osoak hartzen du parte bertan— gutxienez 3 hilean behin egiten du Jasangarritasuneko Gestio Planaren jarraipena eta kontrola.Jasangarritasun Txostenean azaltzen da helburu horien urteko bilakaera. <p>Inpaktu-azterketaren ondoriozko helburuak epe ertaineko Jasangarritasun Plan Zuzentzailean sartuko ditugu —zehazten ari gara—. 2022ko uztailean burutuko den birbideratze estrategikoaren barruan, jasangarritasuna da ardatz nagusietako bat. Estrategia horrek datozen 3 urteetarako balioko du. 2019an Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak sinatzean hartutako konpromisoak eta ezarritako helburuak dira jasangarritasun-estrategiaren oinarrietako bat, LABORAL Kutxaren asmoari buruz hasitako hausnarketarekin batera.</p>	<p>Gaztenpresa Fundazioa (66-67 G.)</p> <p>2.2. Konpromisoak eta lorpenak (29-30 G.)</p>
<p>Ondorioztatu/adierazi ea zure bankuak helburuak ezartzeko eta monitorizatzeko planen baldintzak bete dituen.</p>		
<p>2021aren bukaeran eta 2022aren hasieran jasangarritasunaren arloko gobernantza-egitura zehaztu dugu. Horren arabera, Kontseilu Errektoreak jarraipena egingo du, Jasangarritasun Batzordea (Zuzendaritza Kontseiluko kide guztiak partaide dituen) trebatu egingo da eta Jasangarritasun Bulegoa sortuko da.</p> <p>Gobernantza-egitura hori LABORAL Kutxan finantza jasangarrien estrategia sustatzeko eta horren ezarpenaren jarraipena egiteko sortu da. Estrategia hori bat dator Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioekin.</p>		
<p>2.4. Helburu-ezarpenaren aurrerapena</p> <p>Helburu bakoitza banaka hartuta:</p> <p>Erakutsi ezarri direla alde zurek aurretik zehaztutako ekintzak.</p> <p>Azaldu zergatik ezin izan ziren ekintzak ezarri edo zergatik aldatu behar izan ziren, eta bankua nola ari den bere plana egokitzen, ezarritako helburua betetzeko.</p> <p>Azaldu bankuak azken 12 hilabeteotan zer aurrerapauso egin duen ezarritako helburu bakoitza lortzeko, eta aurrerapen horrek zer inpaktu izan duen</p>	<p>2021ean, helburuak egoki bete dira, oro har. Gehienak bete egin dira, jarduera finantzarioarekin lotutakoak salbu, horiek geldotu egin baitira COVID-19aren eraginez.</p> <p>Inpaktu-azterketaren ondorioz ezarri diren helburuei dagokionez, sortu berriak dira, eta hurrengo txostenetan aztertuko da ildo horietan eman diren aurrerapausoak.</p> <p>Adierazi denez, helburuok Jasangarritasun Plan Zuzentzailean sartuko ditugu. Plan hori lantzen ari gara, eta, aldi berean, martxan da Entitatearen asmoari eta birbideratze estrategikoari buruzko hausnarketa. Helburuak lortzeko beharrezkoak diren ekintza-planak abian jarri dira.</p>	<p>2.2. Konpromisoak eta lorpenak (29-30 G.)</p>

TXOSTENAK ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK	BANKUAREN ERANTZUNAREN GOI-MAILAKO LABURPENA	BANKUAREN ERANTZUN OSOAREKIKO/INFORMAZIO NABARMENAREKIKO ERREFERENTZIAK/ESTEKAK
Ondorioztatu/adierazi ea zure bankuak helburuak ezartzeko aurrerapenari dagozkion baldintzak bete dituen.		
Helburu estrategikoak lortzeko bidean egindako aurrerapena egokia izan da, 2021ean egoera berezia bizi izan dugun arren. Helburu berriak hurrengo txostenean aztertuko dira.		
3. PRINTZIOIOA. Bezeroak eta kontsumitzaileak. Bezeroekin eta kontsumitzaileekin arduraz lan egitea, jardunbide jasangarriak sustatzeko eta oraingo zein etorkizuneko belaunaldientzat oparotasun partekatua sortuko duten jarduera ekonomikoak bultzatzeko.		
<p>3.1. Egizu deskribapen orokor bat, bezeroekiko harreman arduratsuak sustatzeko bankuak ezarri dituen edo ezartzeko asmoa duen politika eta jardueren gainean. Goi-mailako informazioa eman ezarritako (edo planifikatutako) programa eta ekintzei eta haien eskala eta emaitzei buruz.</p>	<p>Bezeroekiko harreman arduratsuak sustatzeko LABORAL Kutxak ezarritako neurriak deskribatzen dira. Ziur gara sortu ginenetik izan dela arduratsua gure jokabidea, kreditu-kooperatiba garelako kontuan hartuz.</p>	<p>3.1. Bezeroekiko harremanak (37-51 G.)</p>
<p>3.2. Deskribatu bankuak nola egin duen lan edo nola lan egiteko asmoa duen, jarduera ekonomiko jasangarriak sustatzeko. Eman alderdi hauei buruzko informazioa ere: planifikatutako/ezarritako ekintzak, garatutako produktuak eta zerbitzuak eta lortutako inpaktuak.</p>	<p>Atal honetan, bezeroekiko harreman arduratsuak sustatzeko egindako jarduerak deskribatzen dira. Azken 12 hilabeteetan merkaturatutako hauek nabarmendu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Simulatzaileak eta finantzaketa-produktu baten eskaintza, auzotar-erkidegoen energia-eragin-kortasuna hobetzeko. • LK Next eskaintza enpresa bezeroentzat, EBren Green Deal funtsak eskuratzeko. • Inbertsio-funts jasangarrien eskaintza Europar Batasuneko dibulgazio-erregelamenduen eta MiFID II araudiaren arabera egokitzea. 	<p>3.1. Bezeroekiko harremanak (37-51 G.)</p> <p>3.1.3. Bezeroekiko elkarriketak (37-39 G.)</p>
4. PRINTZIOIOA. Alderdi interesdunak. Alderdi interesdun garrantzitsuekin hitz egin, parte hartu eta proaktibotasunez eta arduraz elkartu, sozietatearen helburuak lortzeko.		
<p>4.1. Deskribatu zer alderdi interesdunekin hitz egin duzun eta konprometitu edo elkartu zaren, Printzipioak ezartzeko eta bankuaren inpaktuak hobetzeko helburuarekin.</p>	<p>Jasangarritasun Txostena egiteko, zenbait interes-talde daude identifikatuta, eta haiekin elkarriketak izateko mekanismoak ezarri dira.</p> <p>Negoioari eta jasangarritasunari buruzko alderdiak ere hartzen dituzte aintzat. Materialtasun-analisia egiteko, Txostenaren laburpena bidali genien 600.000 bezero, hornitzaile, langile eta kooperatibistari. Ia 2.100 erantzun jaso ditugu.</p>	<p>2.4. Materialtasun-analisia (32-34 G.)</p> <p>2.2. Konpromisoak eta lorpenak (29-30 G.)</p> <p>Interes-taldeak urtero hartzen dira kontuan, materialtasun-analisia egiten denean.</p>

BANKU-JARDUERA ARDURATSUAREN PRINTZIOIOAK

LABORAL Kutxaren 2022ko Garapen Txostena | 8 / 10

TXOSTENAK ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK	BANKUAREN ERANTZUNAREN GOI-MAILAKO LABURPENA	BANKUAREN ERANTZUN OSOAREKIKO/INFORMAZIO NABARMENAREKIKO ERREFERENTZIAK/ESTEKAK
<p>Deskribatu bankuak nola identifikatu dituen alderdi interesdun garrantzitsuak, zer arazo aztertu diren eta zer emaitza lortu den.</p>	<p>2022an martxan jarri dugun materialtasun-analisan materialtasun bikoitza hartu dugu kontuan, lehenagotik stakeholderrekin egiten zen materialtasun-matrizetik haratago.</p>	<p>3.1.3. Bezeroekiko elkarriketa (37-39 G.)</p> <p>3.2.3. Plantillarekiko elkarriketak (52-53 G.)</p> <p>Negoiazio kolektiboa (52-53 G.)</p> <p>3.3.3. Gizartearekiko elkarriketak (69. G.)</p>
<p>5. PRINTZIOIOA. Gobernua eta kultura. Printzipio horiekiko konpromisoa ezartzea, gobernu eraginkorraren eta banka-kultura arduratsuen bitartez.</p>		
<p>5.1. Deskribatu inpaktu garrantzitsu positiboak eta negatiboak (potentzialak) kudeatzeko eta Printzipioen ezarpen eraginkorra sustatzeko bankuak erabili dituen edo erabiltzeko asmoa duen gobernantza-egitura, -politika eta -prozedura garrantzitsuak.</p>	<p>2021aren bukaeran eta 2022aren hasieran, jasangarritasuneko bide-orriaren garapenean sendotu egin da jasangarritasunaren gobernantza. Zehazki:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontseilu Errektoreak, gizon- eta emakume-kopuru bera duenak, LABORAL Kutxa Taldearen jasangarritasun-politika onartu du. Webgunean dago eskuragarri. • Kontseilu Errektoreak gutxienez 3 hilean behin egingo du martxan jarritako jasangarritasun-ekimenen jarraipena. • Jasangarritasun Batzordea sortu dugu. Zuzendaritza Kontseiluko kideek eta Jasangarritasun Bulegokoek osatzen dute. Batzorde hori arduratuko da Kontseilu Errektoreak zehaztutako estrategia eta gestio-planak gauzatzen direla bermatzeaz. Horretarako, martxan dauden ekintzen jarraipena egin eta behar diren neurriak hartuko ditu, Entitate egokitu dadin estrategian finantza jasangarriei dagokienez zehaztutako posizionamendura. Batzordea 3 hilean behin bilduko da, gutxienez. • Jasangarritasun Bulegoa (JB) sortu da askotariko ekimenak koordinatu eta sustatzeko, eta 3 kidek osatzen dute. • Jasangarritasun Taldea sortu da. Planteatutako ekintzak gauzatzeko ardura izango du eta zenbait departamentutako buruak ditu partaide: Merkataritza, Arriskuak, Arriskuaren Kontrola, Pertsonak, Teknologia eta Auditoretzako areetakoak, besteak beste. 	<p>1.8. Printzipioak eta gobernua (17-22 G.)</p> <p>1.9. Gobernu-organoen garapena (22. G.)</p> <p>Jasangarritasun-politika</p>
<p>5.2. Deskribatu langileen artean banku-kultura arduratsua sustatzeko bankuak ezarri dituen edo ezartzeko asmoa duen neurriak eta ekimenak. Besteak beste gai hauen goi-mailako ikuspegia ere sartu beharko litzateke</p>	<p>Kreditu-kooperatiba da LABORAL Kutxa; beraz, langileak enpresaren jabe dira eta demokratikoki esku hartzen dute erakundearen kudeaketan eta erabaketan. Gizarte-ekonomia da gure banka kooperatiboa, eta banka arduratsuen kultura erabiltzen dugu gure funtzionamenduan.</p> <p>Gestio-planean prestakuntza- eta komunikazio-neurri asko jaso dira, banku-kultura arduratsua ezartzeko bidean aurrera egiteko, besteak beste, hauek:</p>	<p>1.3. Kooperatibismoa (10-11 G.)</p> <p>Balioak, printzipioak, estandarrak eta jokabide-arauak (9-10 G.)</p> <p>1.10. Gobernu-organoen ordainketa (21. G.)</p>

BANKU-JARDUERA ARDURATSUAREN PRINTZIOIOAK

LABORAL Kutxaren 2022ko Garapen Txostena | 9 / 10

TXOSTENAK ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK	BANKUAREN ERANTZUNAREN GOI-MAILAKO LABURPENA	BANKUAREN ERANTZUN OSOAREKIKO/INFORMAZIO NABARMENAREKIKO ERREFERENTZIAK/ESTEKAK
<p>deskribapenean: ahalmenaren sorrera, jarduera ordaintzeko eta kudeatzeko egiturak eta lidergoaren komunikazioa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza, hauentzat: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Kontseilu Errektorea: jasagarritasun-arriskuei buruzko prestakuntza berezia. ✓ Zuzendaritza Batzordea eta departamentuetako zuzendaritzak. ✓ Departamentuak: aurreikusita dagoen banku-araugintzari buruzko prestakuntzan sartuta dago LKren jasagarritasunaren gaia. ✓ Pertsona guztiak: finantza-sektoreko jasagarritasunari eta horren inpaktuari buruzko inarrizko ikuspegia: <ul style="list-style-type: none"> • Barne-prestakuntza orokorra: Jasagarritasun Bulegoa • Kanpo-prestakuntza: MiFID (5 ordukoa) ✓ Zerbitzu Zentraletako taldeentzako prestakuntza: arriskuak, altxortegia, enpresa-sarea, NGA, arrisku-kontrola. • Komunikazioaren ikuspegitik: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Kooperatiba-balioekin lotutako LKren jasagarritasun-kontakizuna eraikitzeke hausnarketa. ✓ Jasagarritasunaren arloan —ingurumen-aldagaia barne— izandako aurrerapenen barne-zabalpena. ✓ Jasagarritasunean egindako aurrerapenen kanpo-komunikazioa sendotzea. ✓ Azterketa-zentroa. Jasagarritasuna azterketetan txertatzea. • 2021ean jasagarritasun-helburuak finkatu dira, Zuzendaritza Batzordeko kideen ordainketa aldakorraren barruan. • 2022an helburu horiek departamentu-zuzendaritza guztien mailara eta sekzio batzuetara zabaldu dira. 	<p>1.8. Printzipioak eta gobernua (17-20 G.)</p> <p>3.2.7. Ordainsariaren gestioa (56-57 G.)</p>
<p>5.3. Printzipioak ezartzeko gobernu-egitura</p> <p>Erakutsi bankuaren gobernu-egiturak eginkizun hauek ere betetzen dituela:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) Helburuak eta haiek lortzeko ekintzak ezartzea. b) Neurri zuzentzaileak ezartzea, helburuak lortzen ez badira edo ustekabeko inpaktu negatiboak detektatzen badira. 	<p>5.1 puntuan ikusi denez, 2021ean zehaztutako finantza jasagarrien estrategia ezartzeko ibilbide-orriaren barruan, jasagarritasun-gobernantza finkatzea izan da puntu nagusietako bat. Gaur egun, jasagarritasunaren gobernantzak zenbait maila ditu, eta horiek jasagarritasun-helburuen ezarpenean —Printzipioak barne— aurrera egiteko helburuak ezartzea bermatzen dute. Era berean, aldizka, helburu horiek lortzeko bidean egindako aurrerapenen jarraipena eta kontrola egiten dira.</p> <p>Lehendik ere azaldu dugunez, Plan Estrategikoan eta Gestio Planean txertatu dira Printzipioak, eta Gestio Planari jarraipena egiten zaio.</p> <p>Jasagarritasun Batzordearen ardura da jasagarritasunari eta Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen ezarpenari lotutako guztiaren jarraipena zuzendu, sustatu eta egitea.</p>	<p>Ingurumen-helburuei dagokienez, UNE EN ISO 14001 ingurumen-ziurtagiriaren jabe gara.</p> <p>3.4.1. Gestio-ikuspegia— Ingurumena (71-73 G.)</p> <p>Jasagarritasun-politika</p>

TXOSTENAK ETA AUTOEBALUAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK

BANKUAREN ERANTZUNAREN GOI-MAILAKO LABURPENA

BANKUAREN ERANTZUN OSOAREKIKO/INFORMAZIO NABARMENAREKIKO ERREFERENTZIAK/ESTEKAK

Ondorioztatu/adierazi ea zure bankuak printzipioak ezartzeko gobernu-egituraren baldintzak bete dituen.

LABORAL Kutxak goitik behera berrikusi eta eguneratu du jasagarritasuna gestionatzeko egitura. Egitura sendotu du, bultzada handiagoa emateko, gure kreditu-kooperatiba izaeraren berezitasunei eutsita.

6. PRINTZIOIOA. Gardentasuna eta erantzukizuna. Printzipio hauen ezarpen individual eta kolektiboa aldi behin berrikustea, eta gardenak eta arduratsuak izatea geure inpaktu positibo eta negatiboetan eta gizartearen helburuak betetzeko egiten dugun ekarpenean.

6.1. Aurrerapena banku-jarduera arduratsurako printzipioen ezarpenean

Erakutsi azken 12 hilabeteotan bankuak aurrera egin duela printzipioen ezarpenari dagokionez, eta gutxienez bi eremutan ezarri eta aplikatu dituela helburuak.

Erakutsi bankuak aintzat hartu dituela printzipioak ezartzeko nazioarteko eta eskualdeko jardunbide egokiak (lehendik zeudenak eta berriak), eta zehaztu dituela jardunbide egokiekin bat egiteko lehentasunak eta asmoak.

Erakutsi bankuak ezarri dituela, edo ezartzeko bidean dagoela, jardunbide egokiekin (lehendik zeudenekin eta berrieekin) bat egiteko aldaketak, eta aurrera egin duela printzipio horien ezarpenean.

Azken 12 hilabeteetan burututako finantza jasagarriari buruzko gogoetak bat egin du Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioekin. Beste ekimen batzuen artean, benchmarkinga egin dugu nazioartean jasagarritasunaren arloan erreferentziazkoak diren finantza-erakundeekin. Eredu gisa erabili diren 6 finantza-erakundeek Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak sinatu dituzte, eta ezagunak dira jasagarritasunaren arloan jardunbide egokiak dituztelako. Hausnarketaren eta alderaketaren ondorioz, jasagarritasun-estrategia ezartzeko ibilbide-orrria landu dugu.

Lehen aipatuenez, datozen 3 urteetarako birbideratze estrategikoari ere ekin diogu, eta jasagarritasunari lehentasuna emango diogu. Finantza-jardueraren digitalizazioarekin batera, jasagarritasunaren alderdia zeharkakotzat eta eraldatzailatzat jotzen dugu.

Printzipioak sinatu zirenez geroztik, haiek ezartzeko NBIP FEk bultzatutako ekimenetan hartu dugu parte. Horri esker, abangoardian gaude nazioarteko jardunbide egokiei dagokienez.

Ondorioztatu/adierazi ea zure bankuak banku-jarduera arduratsuaren printzipioak ezartzeko aurrerapenari dagozkion baldintzak bete dituen.

Printzipioen ezarpena azkartu egin da azken 12 hilabeteetan. Entitatea eraldatzeko oinarrietako bat izan nahi du, jasagarriagoa izango den eredu baterantz bideratuko duena: LABORAL Kutxak kreditu-kooperatiba gisa duen banku-jarduera arduratsuaren tradizioa eta ingurumen-krisiaren zein klima-aldaketaren ondorioen gaineko kezka batuko dituen eredurantz.